

# **GORDEXOLAKO UDALAREN ERABILERA PLANA (2018-2022)**

**Gordexolako Udaleko**  
**EUSKARA PLANA:**  
**2018-2022 PLANGINTZALDIA**  
**Gordexolako Udala, 2018ko egitasmoa**

*AURKIBIDEA*

<u>1. SARRERA</u>	3 orr.
<u>2. TESTUINGURU JURIDIKOA</u>	4 orr.
<u>3. IRIZPIDE OROKORRAK:</u>	5 orr.
<b>3.1. Irizpide orokorrak: herri administrazioak, oro har, ESEPen ezarritakoaren arabera</b>	
<u>4. ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA</u>	7 orr.
<u>5. GAUR EGUNGO HIZKUNTZA EGOERA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK:</u> <u>lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun data.</u> <u>Hizkuntza gaitasun-prozesuari buruzko informazioa.</u>	8 orr
<u>6. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK:</u>	14 orr
<u>7.-PLAN ESTRATEGIKOA: helburuak eta adierazleak</u>	16 orr.
<u>8.- HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK ETA NEURRIAK</u>	22 orr.
<b>8.1. Ahozko komunikazioa</b>	
<b>8.2. Idatzizko Komunikazioa</b>	
<b>8.3. Komunikazio telematikoa</b>	
<b>8.4. Itzulpenak</b>	
<b>8.5. Langileen prestakuntza orokorra</b>	
<b>8.6. Berariazko hizkuntza-prestakuntza eta Trebakuntza</b>	
<b>8.7. Tresna eta aplikazio informatikoak</b>	
<b>8.8. Internet</b>	
<b>8.9. Argitalpenak</b>	

**8.10. Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)**

**8.11. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak**

**8.12. Diru-laguntzak**

**8.13. Kontratazio administratiboak**

<u>9.- PLANAREN KUDEAKETA.</u>	37 orr.
<u>10.- PLANAREN JARRAIPENA.</u>	38 orr.
<u>11.- BALIABIDEAK.</u>	38 orr.

## 1.-SARRERA

Euskararen Erabilera 10/1982 Oinarrizko Legeak argi eta garbi ezartzen du herritarrek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela, eta herri-administrazioek eta zenbait erakunde publiko eta pribatuk bermatu behar dutela eskubide hori. Hona hemen, beraz, Legearen hastapen edo oinarririk funtsezkoena: hizkuntza-eskubideak herritarrenak dira, eta herri-administrazioei dagokie eskubide horiek betetzen direla bermatzea. Azken batean, euskarak ere zerbitzu-hizkuntza behar du izan herritarrekiko harremanetan; lan-hizkuntza, herri-administrazioen arteko komunikazioetan eta herri-administrazio barruko jardunean. Izan ere, herritarrak eurek hautatutako hizkuntzan artatuak izango direla bermatzeko modurik eraginkorrena da euskaraz ere normaltasunez lan egiten duen herri-administrazioa lortzea; eta hori lortze aldera eta euskara egoera ahulagoan dagoenez, herri-administrazioek akzio positiboak ezarri behar dituzte euskararen alde.

Beraz, hizkuntza eskubidea herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzeko neurriak hartzea eta betetzen direla bermatzea. Izan ere, erabilera planean jasoko diren neurriak erakundearen gogoetaren ondorio izango dira, eta ez langile baten borondatearen emaitza.

Gordexolako udalean hauexek dira euskaraz lan egiteko gaitasuna dutenak: Lanpostu zerrendan dauden langileen artean %44,44k dauka egiaztatuta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, hau da lau langile. Beste batek hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta du, HE2, dagokiona baino bi baxuago. Ordezkaritza politikariei dagokienez gero eta gehiago dira euskara dakitenak: gaur egun %66,66k ulertu edo hitz egin dezake euskaraz.

Dena den, nahiz eta egoera gero eta hobea izan gaitasunari dagokionean, oraindik ere gaztelania da hizkuntza nagusia udalaren jardunean bai langileen artean bai politikarien artean. Horregatik plangintzaldi honen helburua izango da gaitasunetik erabilera salto egitea ahalik eta esparru gehienetan. Horrela langileek hizkuntza gaitasuna hobetzea lortuko dute, lana euskaraz egiten duten neurrian eta hala eskatzen duten kasuetan zerbitzua euskaraz ematea ere bermatuko da.

Udala herrian dagoen errealitateari egokitu behar zaio eta nahiz eta denok dakigun Gordexola ez dela tradizioz herri euskalduna izan, aurrerapen handia eman da azken urteotan eta 2016ko datuen arabera biztanleen %30,27 euskaldunak dira eta %21,45 ia euskaldunak; biak batuta biztanleen erdira heltzen gara. Beraz, Gordexolako Udalak gero eta euskaldunagoa den gizarteari eman behar dio zerbitzua.

Hori guztia kontuan izanda baita VI. Plangintzaldiaren lerro estrategikoak ere, egin du erabilera plana Gordexolako Udalak. Eta ondorengo gaiak agertuko dira:

- Udalaren gaur egungo egoera lanpostuetan hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun datak zehazteko jarraibideak
- Udalan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak (besteak beste Itzulpen kopurua gutxitzeko jarraibideak, prestakuntza orokorraren garrantzia, dokumentuen estandarizazioa eta kontratazio irizpideak zehaztuta jasotzea,)

-Datozen langile berriei nola ezagutarazi udalaren hizkuntza politika: harrera protokoloa.

## **2.-TESTUINGURU JURIDIKOA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du eta administrazioetako lanpostu-zerrendetan bi hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza duten lanpostuak finkatu beharra ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak Funtzio Publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaren oinarri ere badira.

Herri-administrazioetan bost urte irauten duten plangintzaldien bidez bultzatzen da euskararen erabileraren normalizazioa. Plan horien bidez, hizkuntza-eskakizunez gainera, bestelako esparruak ere arautzen dira: hizkuntza irizpideak, euskara bultzatzeko neurriak, eta abar.

I. Plangintzaldiaren (1990-1995) helburua izan zen Administrazioako langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko; horretan egin ziren ahaleginik handienak, hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzen, langileak euskalduntzen eta alfabetatzen, eta abar.

II. Plangintzaldian (1997-2002), langileak euskalduntzeaz eta alfabetatzeaz gain, euskararen erabilera planen presentzia orokortzeko apustua egin zen. 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ekarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxienezko osagaiak jaso ziren aipatu Dekretuaren 18. atalean. Dekretuak indarrean jarraitzen du.

III. Plangintzaldian (2003-2007), langileak euskalduntzen jarraitzeko neurriak ahaztu barik, oinarri teoriko sendoak jarri ziren euskararen erabilerak gora egin zezan Administrazioan: administrazio-atalak eta lehentasunak definitu ziren, AEBEMET metodologia, hizkuntza normalizatzeko neurriak, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak... Esparru publikoko langileak gero eta euskaldunagoak ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten, eta huraxe bilakatu zen erronkarik handiena.

IV. Plangintzaldiak (2008-2012) aldaketa handia ekarri zuen: planifikazio zehatz bat jarri zen martxan, euskara ere ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko, gaztelaniaren parean jarrita, bi hizkuntzen berdintasuna sustatuz horrela. Plangintzaldi hartan finkatu ziren azterketa komunikatiboak, berariazko hizkuntza-prestakuntzaren garrantzia, kudeaketarako antolakuntza-egiturak... hori guztiori, bi hizkuntza ofizialak maila berean erabiltzeko aukera

bermatzeari begira.

V. Plangintzaldia (2013-2017) etorri zen gero, eta argi eta garbi ezarri zuen helmuga: euskara ere administrazioetako jarduneko ohiko lan-hizkuntza izatea. Datuek erakusten dutenez, administrazioek neurri handi batean bermatzen dituzte herritarrekiko euskarazko komunikazioak; era berean, prestatuta daude, gehiago edo gutxiago, euskaraz lan egiteko; hala eta guztiz ere, oraindik ere gaztelania da lan-hizkuntza nagusia, eta handia da itzulpenekiko mendekotasuna. Guztiarekin ere, azken plangintzaldi honetan ibilbide polita egin da bai administrazioen arteko elkarlana areagotzeko, bai normalizazioaren kudeaketaren gaineko gogoeta sakona egiteko.

VI. Plangintzaldira iritsi gara, eta plangintzaldi hau, oroz gainera, euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratuko duen kudeaketa eredu berriaren plangintzaldia izango da. Euskararen kudeaketak erakundearen kudeaketa orokorraren barruan egon behar du txertatuta: ezin daiteke geratu gure kudeaketa orokorretik kanpo.

Testuinguru honetan, **Gordexolako udalak**, beraz, indarrean dagoen araudia eta bere eskumeneko jardun-eremurako emandako jarraibideak beteta, berari dagokion Erabilera planaren egokitzapenak landu eta onartuko ditu, dokumentu honetan azaltzen denez. Gordexolako Udalak 2002an onartu zuen lehenengo erabilera plana eta harrezkero langileen euskalduntzeaz eta euskara zerbitzu hizkuntza izateko neurriak hartzeaz arduratu da urtez urte.

Izan ere, dokumentu honen edukiak, aurrez onartutako plana kontuan izateaz gain, bere balorazioa eta ondorioak kontuan hartuta, 86/1997 Dekretuaren **19. atalean** agertzen dena betetzeko asmoz, **VI. Plangintzaldiaren** lehenengo urtean, **aurrez egindako planari egokitzapenak** egingo dizkio eta planaren inplementaziorako egokiak diren aldaketak eta neurriak jasoko ditu. Hau da, VI. Plangintzaldi honetan orain arteko bidea sendotu nahi da. Eta gaitasunari garrantzia emango bazaio ere, erabilera izango da jomuga eta euskara lan-hizkuntza bihurtzeko urratsak ematen jarraituko dugu. Horretarako Erabilera planean ahalik eta langile gehien sartuko dira eta metodologi malgua erabilita hizkuntzen berdintasunera joko da. Gordexolako udalak zabaldu behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz.

### **3.- IRIZPIDE OROKORRAK**

Indarrean dagoen legeria ez ezik, EAEko egoera soziolinguistikoa kontuan harturik, bi hizkuntza ofizialek izan behar dute lekua herri administrazioetako jardunean. Plangintzaldiaren xede nagusia da Gordexolako Udalean hizkuntzen berdintasunera jotzea, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza “normala” bilakatzea, hori guztiori, presentzia bermatuzetik haratago joanda eta euskarazko sortze-lana areagotuta. Euskara, beraz, lanerako hizkuntza izatea bere osoan: **zerbitzu-hizkuntza** herritarrekin, **harreman-hizkuntza** beste administrazioekin, eta Udal barruko lan-hizkuntza.

Bada, hiru harreman horiek ezinbestekoak izanda ere euskararentzat, **herritarrekikoa** da gure lehen erronka Gordexolako Udalean. Kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko luke zerbitzua hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela. Hori lortzeko, ezinbestekoa da erabilera planaren helburuak egingarriak izatea eta bitarteko eraginkorrak finkatu eta eragileen arteko adostasuna lortzea.

**Beste administrazio batzuekiko komunikazioei dagokienez** (harreman-hizkuntza), behar-beharrezkoa da erakundeen arteko koordinazioa, ez bakarrik euskararen presentzia ziurtatzeko baizik eta, adostasuna tarteko eta bideragarria denean, euskarazko harremanen alde egiteko.

**Lan-hizkuntzari erreparatuta**, Gordexolako udalaren egoera gero eta hobea da, dena den, oraindik asko falta da gure helburua lortzeko. Beraz, poliki-poliki, prestakuntza egokiaz baliatuta eta euskaraz lan egin behar dutenen arteko harreman-sarea osatu ahala, elebidunen arteko euskararen erabilera areagotzen ahaleginduko gara.

### **3.1. Irizpide orokorrak: herri administrazioak, oro har, ESEPen ezarritakoaren arabera**

#### **3.1.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea**

- Herri administrazioek hizkuntza kudeaketako planak onartzea eta garatzea.
- Beren lanean euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek eta euskaraz jarduteko gai diren herritarrek administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera era progresiboan areagotzeko erakunde bakoitzean neurriak hartzea.
- Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
- Hizkuntza paisaian (errotulazioa eta noizbehinkako oharrek) euskararen erabilera bermatzea:
  - Erakunde barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitzea.
  - Administrazioaren seinaleztapen publikoan eta noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitzea, komunikagarritasuna zainduz.
- Erakundearen agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehentasuna bermatzea.
- Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, betiere herritarren hizkuntza aukera errespetatuz.

- Erakundearen idatzizko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- Herri administrazioetako kargudun publikoek euskararekiko jarrera eraginkorra agertzea, bai herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, baita euskara ere lan hizkuntza izan dadin.

### 3.1.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea

- Euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan dadin bideak jartzea. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen eta, edozeinetara ere, euskara erabiltzeko gai den herri-langile ororen ohiko lan hizkuntza izango den neurrian, besteak beste kontuan harturik planean ezarritako helburuak eta bitartekoak, erakundearen hizkuntza egoera, zerbitzu administratiboaren izaera, herri-langileen hizkuntza gaitasuna eta jarrera, eta administrazioaren jardura eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak; betiere herritarren hizkuntza aukeraren kalterik gabe.
- Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lan jardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jartzea.
- Euskara lan hizkuntza moduan finkatzeko hartuko diren oinarri nagusiak lanpostuaren komunikazio funtzioak eta lanpostuko herri-langilearen euskara gaitasuna eta hizkuntza-jarrera izango direnez, herri-langileen euskararen aldeko jarrera, motibazioa eta onarpena sustatzea, horretarako behar den prestakuntza eta laguntza eskainiz.
- Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileen hizkuntza erabileretan lehentasunezko arreta jarri, eta “erabilera-helburu” zehatzak (Kualitatibo eta kuantitatiboak) jartzea.
- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera ziurtatzea eta gehitzea.
- Erakunde barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia bermatzea.

## 4.- ERAGIN EREMUA ETA ERAGIN EPEA

Plan honen **ERAGIN EREMUAREN** baitan Gordexolako Udala bera dago. Bada, Lanpostu Zerrendako 11 lanpostu, baina, horietako bi hutsik daude. Horietaz gain, Gordexolako Udalak hainbat zerbitzu publiko kanpoko enpresen bidez ematen ditu: Arkitekto eta arkitekto teknikoa, Informatikaria, Udal ikastaroak, Gazte Txokoaren kudeaketa, igerilekuetako sorosleak... Horietako batzuk lehentasunezko zerbitzuak dira euskararen erabilerari begira, beraz, udalak bermatu behar du zerbitzu horietan euskara zerbitzu hizkuntza bezala erabiltzen dela eta herritarren hizkuntza eskubideak betetzen direla. Hau da, zerbitzu horiek



kudeatzeko enpresak hautatzeko lehiaketa egiten denean kontratazio pleguetan baldintza horiek guztiak bete behar direla agertu beharko da. Dena den, batzuetan nahiz eta baldintzak pleguetan txertatu, antzinako langileak hartu behar ditu enpresa berriak eta oztopoak izaten ditu, pleguetan zehaztutako guztia betetzeko. Beraz, prozesua progresiboki egingo da.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren **ERAGIN ALDIA** 2018an plana onartzen denean hasi eta 2022ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza normalizazio prozesuaren VI. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

**5. GAUR EGUNGO HIZKUNTZA EGOERA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK: lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun data. Hizkuntza gaitasun-prozesuari buruzko informazioa. 86/97 Dekretuan (apirilaren 15ekoa, herri-administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena) administrazio-atalen izaeraren araberako hurrengo sailkapena jasotzen da:**

- ★ Jendaurreko atala: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean.
- ★ Gizarte-izaerako atala: herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte-mailakoak direnean.
- ★ Atal orokorra: bere zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.
- ★ Atal berezia: atal berezizat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, eraikinen mantentze- eta kontserbazio-lanetan, obra, garbiketa eta abarretan edo, bestela, lan teknikoak burutzen dituzte instalakuntza zein ekipoen, laborategi eta antzekoen mantentze- eta kontserbazio-zereginetan.

**Indarrean dagoen araudiari jarraituz bete beharreko helburua**

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua dagoeneko seigarren plangintzaldian dago, 2018-2022ri dagokionean hain zuzen ere. 2016ko erroldaren arabera **Gordexolako Udalari** dagokion derrigortasun-indizea [euskaldunak + (ia-euskaldunak/2)] **% 41ekoa** da (11. art.).

Biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop	%
1.655	501	30,27	355	21,45	799	48,28

Hortaz, apirilaren 15eko 86/97 Dekretuaren arabera, **2. helburu mailakatu betetzea dagokio** VI. plangintzaldi honetarako (17. atala).

a) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

b) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean:

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.”

2. helburu mailakatuari lotuta, 86/97 Dekretuak dionari jarraituz, Gordexolako Udaleko atal eta lanpostuak era honetan sailkatu dira:

<b>Atalaren izaera</b>	<b>Administrazio atala</b>	<b>Lanpostuaren izena eta izaera</b>
<b>Orokorra</b>	Idazkaritza-kontuhartzailtza	Idazkari/kontu-hartzailea (1) orokorra Finantza adm. diplomatua (1) orokorra Idazkaritzako administraria (1) orokorra Kontuhartzailtzako administraria (1) orokorra (hutsik dago) Idazkaritzako adm. (1) jendaurrekoa Adm. Laguntzaileak (1) jendaurrekoa Euskara irakaslea eta itzultzailea (1) gizarte erakoa
<b>Jendaurrekoa</b>	Kultura	Kultur etxeko eta liburutegiko arduraduna (1) jendaurrekoa Kultura-suspertzailea (1) jendaurrekoa (hutsik dago)
<b>Berezia</b>	Obrak eta zerbitzuak	Arduraduna (1) berezia Askotariko eginkizunetarako langilea (1) berezia

Argiago ikusteko oraingo hizkuntza egoera zein den azalduko dut jarraian. Hau da, atal honetan udalari dagokion derrigortasun indizea, indize horren betetze maila, hau da, zenbat langilek egiaztatu duten lanpostuan ezarrita duten hizkuntza eskakizuna, langile elebidunen ehunekoa eta langileen trebakuntza beharrianak jasoko dira, besteak beste. Hori guztia

jakitea oso garrantzizkoa da euren euskalduntze-prozesuan eragin nahi badugu euren maila hobetu behar dituzten tresnak eta baliabideak eskainiz. 2018an onartu zen Lanpostu Zerrendaren errealitatea agertuko da islatuta jarraian azaltzen diren tauletan.

<u>Administrazio atala</u>	DD betea	DD ez bet.	DD salbu	Lanp. Kop.	HE	Egiaztatutako HE	Lanpostuaren izena:
Idazkaritza-kontuhartzaitza (Orokorra)				1	4	HE 2	Idazkari-kontuhartzaitza
	1999			1	3	HE 3	Finantza adm. diplomatua
				1	3		Kontuhartzaitzako adm. (Hutsik)
	2002			1	2	HE 2	Idazkaritzako adm.
			S	1	2		Idazkaritzako adm.
	2014		S	1	2		Adm. laguntzailea
				1	4	HE 4	Euskara irakasle eta itzultzailea (hutsik) behin behineko lan itunpeko langilea
Kultura (Jendaurrekoa)	1999			1	3	HE3	Kultur etxeko eta liburutegiko arduraduna
		2000		1	3		Gizarte- eta kultur suspertzailea. (Hutsik)
Obrak eta zerbitzuak (berezia)			S	1	1		Arduraduna
			S	1	1		Askotariko eginkizunetarako langilea

#### AZALPENA

HE betea dutenak  
Dagokien baino hizkuntza eskakizun bat gutxiago

Goiko taula kontuan hartuta hurrengo ondorioak atera ditzakegu:

- 11 lanpostutik 8 daude beteta eta 3 hutsik. Hutsik daudenen artean euskara irakasle eta itzultzailearen lanpostua behin behineko lan itunpeko langile batekin dago beteta. Beraz, 11 lanpostu eta 9 langile ditugu.

- Gordexolako udalean lanpostuen **%45,45ek** dauka **derrigortasun data ezarrita** eta horietatik **%60k egiaztatu** du dagokien hizkuntza eskakizuna. Hau da, egiaztatu gabe bi lanposturi dagozkienak dira, hau da, hutsik dagoen lanpostukoa, eta salbuetsita dagoen langile baten lanpostukoa, hain zuzen.
- VI. Plangintzaldian gaudenez, udalak bete behar duen indizea **41koa** da. Honek esan nahi du LZko 11 lanpostuetatik 4,51k izan behar dutela derrigortasun data. Dagoeneko, 5 data dauzka ezarrita udalak, baina, horietako bat hutsik dagoen lanpostu batean dago, eta jendaurreko beste lanpostu batek ez dauka data ezarrita. Beraz, horrek ez digu laguntzen lortu nahi dugun helburu nagusia betetzen: euskara ZERBITZU HIZKUNTZA izatea. Horretarako, jendaurreko lanpostu guztiek derrigortasun data jarrita eduki behar zuten. Izan ere, 2018-2022ko plangintzaldi hau momentu egokia da udalak ezarrita dituen data guztiak birpasatzeko eta ikusteko egokiak diren ala ez gure planaren helburuak betetzeko. Aurreko guztia kontuan izanda, gure proposamena hau da: **2018-2022ko plangintzaldi honetan derrigortasun berri bat ezartzea** idazkaritzan dagoen jendaurreko lanpostu bati: **Idazkaritzako administratiboari**. Adinagatik salbuetsita dago, baina, lanpostua eta lanjardunak funtsezkoak dira jendearen arretarako eta horrela ordezeko bat kontratatu behar denean edota jubilatzeke orduan lanpostu hori bete behar denean langile euskaldun batek bete beharko du.

Horretaz gain, **hizkuntza eskakizunak aldatzeko proposamena** egin nahi dugu. Hau da, herritarrak artatzeko nahikoa gaitasuna izan behar dute langileek, eta askotan HE2 izatea ez da nahiko herritarrei euskaraz behar bezala arreta emateko, beste administrazioen eskaerei euskaraz erantzuteko, eta azken batean, lana behar bezala bi hizkuntzetan egin ahal izateko. Idazkaritzako administrari laguntzailearen lehentasunezko funtzioen artean herritarrei arreta ematea da, bai telefonoz bai aurrez aurre ere. Hau da, herritarrak lehenengo artatzen dituen langilea da, eta bere funtzioen artean garrantzitsuena herritarrei harrera egitea da, bai aurrez aurre baita telefonoz ere. Lanpostu hori orain salbuetsita dagoen langile batek betetzen du, baina, bi hilabete barru erretiroa hartuko du. Zerbitzu egokia emateko eta herritarren eskubideak bermatzeko egiten dugu gure proposamena. Horrekin batera, beste hiru lanpostutako hizkuntza eskakizuna aldatzea ere proposatzen dugu, hau da, idazkaritzako administratibo biena, aurrekoan bezala, batek jendaurreko arreta dauka eta besteak idazkiak egiteaz gain, udaletxe txikia izanda, askotan izaten du harremana herritarrekin (katastroa, baso-aprobetxamendua...). Gainera, beste administrazio batzuekin eta enpresa pribatuekin harreman handia dauka (lizitazioen jarraipena, errekerimenduak...). Kasu honetan lanpostuak 2002ko data dauka, beraz, data hori eguneratu behar da. Azkenik, Kontu-hartzaitzako administrariari ere arrazoi berberengatik 3. hizkuntza eskakizuna jartzea proposatzen dugu (lanpostu horrek 2007az geroztik 3. Hizkuntza eskakizuna zuen ezarrita lanpostuen zerrenda, baina ez zitzaion HPSri txostena eskatu). Aldaketa honen ondorioz, idazkaritzako

administrariaren (izaera orokorra duena) eta administrari laguntzailearen lanpostuetan alde zurretik ezarrita zeuden datak eguneratuko dira.

Zk.	Lanpostua	HE	Derrigortasun data	Egoera
3	Kontu-hartzaitzako administraria (O)	3		Hutsik
4	Idazkaritzako administraria (O)	3	2019-01-31	Beteta
5	Idazkaritzako administraria (J)	3	2022-12-31	Beteta
6	Idazkaritzako administrari laguntzailea	3	2019-01-31	Beteta

- Modu honetan, lanpostu zerrendako 5 izango dira guztira derrigortasun data ezarrita daukatenak.
- Lanpostu kopurua: 11
- Derrigortasun Data (DD):6
- Zenbatak egiaztatu HE: 2k
- Salbuetsita: 3
- HE egiaztatu gabe: 4 (Hutsik dagoena eta salbuetsita dauden hiru)
- DD ez duten lanpostuak: 6

## 5.- Erabilera planaren barruko lanpostuak: euskara lan hizkuntza.

Euskara ere lan-hizkuntza izatea lortzeko **metodologiari** dagokionez, aurrerago azaldutako baliabideak eskaintzeaz gain, euskarazko sareak areagotzeko ahalegina egingo da, eta herri-langileen euskararen aldeko jarrera, motibazioa eta onarpena ere sustatuko dira.

Plangintzaldi berrian, atal elebidunekin eta euskaldunekin lan egiteaz gain, era bateko edo besteko erantzukizun komunikatiboa duten langile guzti-guztiekin lan egin beharra dago. Horretarako, planerako sarbidea eman beharko diegu langile horiei.

### Euskararen erabilera normalizatzeko planetako parte-hartzaileak

- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gaitua izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten herri-langileak.
- Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan dihardutenek ere aukera izango dute Planean parte hartzeko euskara gaitasuna egiaztaturik badute, euskararen gaitasuna neurriren batean izatea baita gakoa.

Horiek horrela, **Gordexolako Udaleko Euskararen Erabilera Planean 3 langile sartuko dira hasiera batean:** Finantza administrazioan diplomatua, idazkaritzako administraria eta kultur etxeko eta liburutegiko arduraduna. Horietatik, bat baino ez da jendaurrekoa. Baina, bi alderdi izan behar ditugu: alde batetik, honelako egoera soziolinguistikoa duen udal batean langile euskaldun guztiak aprobeztatu behar direla, are gehiago euskara lan hizkuntza izan

dadin lortu nahi bada; bestetik, udal txikia dela eta askotan izaera orokorreko lanpostuek beste edozein udaletan baino funtzio gehiago izango dituzte jendaurrean. Langile horiek guztiak bukatuta dute euren euskalduntze prozesua, beraz, **baliabideak emango zaizkie** (hizkuntza aholkularitza, hiztegiak, formulak, trebakuntza ikastaroak...) zerbitzua euskaraz eman ahal izateko eta **motibazioan eragingo da** bere lana euskaraz egin dezaten. Eta ahal izanez gero, **birziklatze ikastaroak edo euren lanarekin lotuak egin ditzatela** proposatuko zaie.

Izan ere, honelako ezaugarriak dituen erakunde batean gutxieneko euskara ezagutzak dituzten langile guztiak hartu behar dira kontuan eta motibatu behar dira dakiten apurra erabiltzen hasteko eta euren euskalduntze prozesua bukatzeko. Eta behin bukatuta guztiei emango zaizkie baliabideak eta trebakuntza bere lanean euskara erabiltzeko ahoz zein idatziz.

Honen haritik, planaren eragin eremua zehaztu dugunean (7-8. orr.) udalak hainbat zerbitzu kanpoko enpresen bidez ematen dituela aipatu da. Zerbitzu horiek ematen dituzten langileak ez dira planean sarturik egongo, baina, bai ziurtatuko da enpresen kontratazioak egiten direnean langile horiek (ume eta gazteentzako zerbitzuak ematen dituztenak, behintzat) edo herritarrak artatu behar dituztenak (arkitekto teknikoa) elebidunak direla; eta behar izanez gero baliabideak eta hizkuntza aholkularitza emango zaie, euren lana euskaraz egin dezaten.

Esan dugun bezala, Gordexolako Udalaren Euskararen Erabilera Planean 3 langile sartuko dira hasiera batean: Finantza administrazioan diplomatua, idazkaritzako administraria eta kultur etxeko eta liburutegiko arduraduna. (Izaera orokorreko lanpostu bi eta jendaurreko bat). Dena den, idazkaritzan dagoen administrari laguntzailea jubilatzen denean kontratatzen den langileak lanpostuan dituen baldintzak bete behar dituzenez, hori ere sartuko dugu planean. Bestalde, euskara irakasle eta itzultzaile lanpostuan dagoen langilea Mankomunitateko euskara teknikariarekin harreman zuzenean dago eta Planaren inplementazioan eta jarraipenean ere inplikaturik dago, nahiz eta ez egon Planaren barruan.

Politikarien aldetik ere konpromisoa eskatzen da. Hortaz, komunikazioa eta sentsibilizazioa landuko da arduradun politikoen artean, erabilera-planean eta horren ezarpenean inplika daitezkeen. Planaren garrantziaz ohartarazi, eta inplementazioan inplikatzeko konpromisoa hartu beharko dute. Plana onartzeak udalean euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa dakar eta konpromiso hori Udaleko arduradun politiko guztiek barneratu eta bete beharko dute.

Planeko partaideek gutxienez funtzio komunikatiboren bat edo beste betetzeko erabiliko dute euskara lan-hizkuntza gisa, euren eguneroko kanpo- eta barne-harremanetan. Laneko dokumentuen txantiloak elebrietan egoteaz gain, euskarazko sortze-lanak bultzatuko dira.

Hala ere, planean sartzen diren langile guztien lan-jardun garrantzitsuenak aztertuko dira zein funtzio gauzatu ahal duten euskaraz erabakitzeko. Planean sartu diren langileei euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan ahal izateko beharrezko baliabideak eskainiko zaizkie eta gainerako langileei ere bakoitzaren euskalduntze prozesuan aurrera egiteko laguntza emango zaie.

Hala nola, informazioa ematea, baimenak, jakinarazpenak, bilera-deiak, errolda, zergen tramitazioak, katastroa, baso aprobetxamenduen salmentak eta erreklamazioak.

Kultur Etxeko eta liburutegiko arduradunaren kasuan euskara bera izango du lan-hizkuntza, bere lan-jardunen zatirik handiena ahozkoan oinarritzen baita. Bere lanaren hartzaileak umeak eta gazteak direlako.

Euskara Plana garatzeko, Udal langileek honako baliabideak izango dituzte eskura:

- Aholkularitza Zerbitzua (ahozkorako zein idatzirako)
- Hiztegi terminologikoak, testu zuzentzaileak eta baliabide informatikoak
- Mahai gainekoak
- Itzulpen Zerbitzua erabiltzeko jarraibideak
- Trebatze-saioak

Euskara planean zuzenean sartuko ez diren langileak ondorengoak dira:

1. Gordexolako udalean salbuetsita daudenak eta dagokien euskara maila egiaztatuta ez dutenak: 7

## **6. ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK: euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko neurriak**

86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, euren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak. Euren zereginak, batez ere, euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak.

Lehentasanak finkatzeko orduan, atalak, bere osotasunean, baldintzak betetzen ez dituenean, azpiatalak egiteko aukera izango da.

### **Baldintzak**

Atal elebidun izendatzeko eta euskara lan-hizkuntza gisa bermatzeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak honako irizpide eta baldintza hauek proposatzen ditu:

1. Atala osatzen duten lanpostu guztiek edo gehienek (%80ak), derrigortasun-data izatea euren lanpostuetan.

2. Ataleko langile denek edo gehienek (%80ak) nor bere lanpostuetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
3. Atalburuak derrigortasun-data izatea eta dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.

Honela bada:

- Atal elebidunetan, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere izango da: agiriaren sorburu hizkuntza euskara izango da eta lehen hizkuntza Jendaurreko harremanetan eta atalaren gainerako zereginetan ere bai.
- Atal elebidunetan euskaratik gaztelaniarako itzulpen beharriaz, beste atalaren gaztelaniatik euskararako itzulpenek jasotzen duten tratamendu berbera izango dute.

86/1997 Dekretuak ezarritako helburu mailakatuaren arabera, hauek izan behar dira Gordexolako udaleko atal elebidunak:

#### JENDAURREKOA

- ·Kultura

Dena den, atal horretan langile bakarra dagonez, lanpostuetan zentratuko gara eta lehen aipatu bezala, **jendaurreko lanpostu hori landuko dugu kultura atalean eta baldintzak betetzen dituzten izaera orokorreko beste bi langileena** honelako ezaugarriak dituen udal batean euskarazko ezagutzak dituzten langile guztiak aprobetxatu behar ditugulako. Horiek lantzeko mikroplanak osatuko ditugu.

Euskara lan-hizkuntza ere izateko ondorengo normalizazio ekintzotan oinarrituko gara:

1. Banakako trebakuntza edo aholkularitza
2. Taldekako trebakuntza edo aholkularitza
3. Barne erabilerako dokumentuak egokitzea
4. Kanpo erabilerako dokumentuak egokitzea
5. Barneko hizkuntza-paisaia euskaratzea
6. Kanpoko hizkuntza-paisaia euskaratzea
7. Laneko formazioa euskaraz egitea
8. Programa informatikoak euskaratzea
9. Terminologia/lexikoa lantzea



10. Zuzenketak lantzea
11. Hizkuntza-aholkularitza
12. Itzulpena: gaztelaniatik euskarara
13. Itzulpena: euskaratik gaztelaniara
14. Hizkuntza-irizpideak lantzea/betetzea
15. Hitzarmengintza
16. Erabilerarako komunikazio-zirkulua
17. Gai jakinetarako komunikazio-zirkulua
18. Komunikazio-plana kudeatzea
19. Normalizazio-ekintzak kudeatzea
20. Hizkuntza-kalitatea bermatzea

## **7.- PLAN ESTRATEGIKOA: helburuak eta adierazleak**

“Erabilera plana” kontzeptuaren barruan, bi plan ezberdin bereizi daitezke: plangintzaldi osorako plan estrategikoa, eta urteko kudeaketa plana. Heldu diezaiogun, bada, plan estrategikoari. Plangintzaldiaren hasieran, Udalak aurreikusi behar du zein izango diren plangintzaldirako helburuak, eta zer-nolako emaitzak lortu nahi dituzten helburu bakoitzean. VI. Plangintzaldirako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Bikain Ziurtagiriaren eredian oinarritutako sistema osatu du herri administrazioetako Erabilera Plana egiteko eta aplikazio bat osatu du horretarako. Plan estrategikoak bi ardatz ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza; eta lehen eta bigarren mailako elementuak, ardatz horien inguruan.

Gordexolako udalak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako metodologia jarraitu du: lehenengo azterketa sakona egin behar izan du abiapuntuko egoera zein den ezagutzeko, diagnostiko zehatza egin du langileei galdetegi bat helarazita. Ebaluazio horri esker badakigu zein egoeratan dagoen udala eta hortik aurrera zer lortu nahi dugun aurreikusi dugu.

Plana zehazteko ere barruko egoeraz gain berebiziko garrantzia dauka kanpoko egoera soziolinguistikoa ezagutzea. 2016ko erroldako datuak aintzat hartuta, Gordexola udalerrian 2 urtetik gorako 1.655 biztanle dauzkagu. Horietatik, 501 euskaldunak dira eta 355 ia-euskaldunak. Hau da, biztanleen %30,27 dira euskaldunak. Agerikoa denez, urterik urte herri euskaldunagoa dugu Gordexola, nahiz eta oraindik ere kopurua ez izan oso esanguratsua. Sakonduz gero, ikusiko dugu Enkarterrin euskaldun kopururik handiena 5-9- eta 10-14 urte

bitarteko umeen artean dagoela. Eta adinean aurrera egin ahala gero eta euskaldun gutxiago dago, batez ere, 35 urtetik gora dutenetatik aurrera. 35 urtetik aurrera euskaldunen %24,80 baino ez dago. (Eustat 2016)

Hori udaletan eta mankomunitatean dagoen egoeraren erakuslea da. Beraz, datua adierazgarria da guretzat erakusten baitigu udalean bai langile bai erabiltzaile gehienak erdaldunak izango direla. Gaur egun administrazioaren langile zein erabiltzaile gehienak 25-30 urtetik gorakoak baitira.

Hortaz, plan malgua eta gure errealitatera moldatzen dena diseinatu dugu. Ahalik eta langile gehien inplikatu ditugu plana arrakastatsua izan dadin. Horretarako berebiziko garrantzia du langileen motibazioa areagotzeak eta parte-hartze aktiboa sustatzeak. Bere lana euskaraz egiteko tresnak eskainiko dizkiegu, baita erraztasunak eman bere euskalduntze prozesua bukatzeko. Baina hori ez da nahikoa. Langileek euskaraz lan egin dezaten nahi badugu zehaztu egin behar da zein lanjardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan hizkuntza moduan; hau da, nola, norekin, noizko eta batez ere zergatik. Berrito ere azpimarratzen dut, euren konfiantza sendotu behar dela, euskararen erabilerari balio erantsia eman. Eta aurrerago aipatuko dugun bezala, kudeaketa berri bat erabilita: **Kudeaketa aurreratua**.

Hori lortzeko, administrazioak ere jarrera aktiboa izan beharko du prozesu honetan eta argi izan beharko du zer lortu nahi duen, erabilerarako irizpideak zehaztu eta lehen aldiz, eskua luzatu berarekin euskaraz ere harremanetan jarri ahal izateko, bai ahoz eta baita idatziz ere; hau da, eskaera sustatu behar du.

Jarraian, aplikazioan sartutako datuak, hau da, gure plana bera agertzen da:

## PLAN ESTRATEGIKOA

Erakundea:	Gordexolako Udala		
Planaren izena:	Gorxolako Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana		
Hasiera urtea:	2018	Amaiera urtea:	2022
Derrigortasun indizearen betetze maila:	44	Hizkuntza Eskakizunen Egiatzatze-maila:	33
	Plan Estrategikoaren onarpen data:		

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN		AURREIKUSITAKOAK		AMAIERAN	
	EUSKARA	ELEBITAN	EUSKARA	ELEBITAN	EUSKARA	ELEBITAN
<b>ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>	Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.					
<b>ERAKUNDEAREN IRUDIA</b>	Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangornia eta bestelako identifikagarriak erabilia...).					
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	Jendaurreko errotulazioa eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea.					
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	0	100	0	100	0	100
Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	Marketinean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea.					
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak	5	90	5	95	0	0
Jendaurreko ekitaldiak	10	30	15	45	0	0
Herritarrari begira antolatutako ikastaro eta jarduerak	15	0	22	0	0	0
<b>Ingurune digitala</b>	Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea.					
Webgune eta sare sozialen edukia	0	80	0	85	0	0

<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.					
Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.	Herritarrekiko harremanetarako idazkiak euskaraz ere egotea.					
Idatzizko harremanak	1	90	0	100	0	0
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	41	59	55	45	0	0
Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.	Herritarrekiko harremanetan ahozko arreta euskaraz ere egitea					
Harrera	54	0	100	0	0	0
Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	16	0	22	0	0	0
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	46	0	55	0	0	0
<b>LAN-HIZKUNTZA</b>	Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.					
<b>BARNE HARREMANAK</b>	Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara ereohikotasunez erabiltzea.					
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	Bulegoko materialak, paper gauzak, kafe-makinak etab. euskaraz egotea.					
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	0	75	0	75	0	0
Barne harremanak idatziz	Idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.					
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	0	0	0	0	0	0
Lan-bileretako idatziak	8	10	0	0	0	0
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	15	15	25	25	0	0
Barne harremanak ahoz	Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.					
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	2		8		0	
Erakundearen barruko telefonozko harremanak	7		15		0	
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	7		15		0	
Baliabide informatikoak	Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea					

Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua	21	0	30	0	0	0
Euskarazko bertsioen erabilera	5	0	10	0	0	0
<b>PERTSONEN KUDEAKETA</b>	Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.					
Pertsonen kudeaketa	Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera areagotzea giza baliabideen kudeaketan.					
Pertsonen kudeaketa	10	0	15	0	0	0
Laneko prestakuntza	Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.					
Laneko prestakuntza	0	0	0	5	0	0
Ikastaroen kudeaketa	0	0	0	5	0	0
<b>KANPO HARREMANAK</b>	Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.					
Administrazioa	Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.					
Administrazioekiko idatzizko harremanak	2	67	12	70	0	0
Administrazioekiko ahozko harremanak	26		32		0	
Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.	Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.					
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	0	0	0	0	0	0
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	7		12		0	
Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	Euskararen erabilera areagotzea gainerako harremanetan.					
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	11	9	20	15	0	0
Beste entitateekiko ahozko harremanak	5		7		0	
<b>KUDEAKETA SISTEMA</b>	Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.					
ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.					
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-100%)	10		60		0	

3 / 4

Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-100%)	35	55	0
Euskara sortze hizkuntza (0-100%)	27	35	0
Dokumentuen estandarizazioa (0-100%)	60	75	0
HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea	Erakundeko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.		
HOEien betetze maila (0-100%)	52	67	0
PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.		
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	33	44	0
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	56	60	0
Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazio positiboaren portentajea erabilera planarekiko	22	45	0
Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	11	26	0

## **8.- HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK ETA NEURRIAK**

Euskararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dionez, euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, eta erkidegoko herritar guztiek badute hizkuntza ofizial biak jakin eta ahoz zein idatziz erabiltzeko eskubidea. Dena den, argi dago ofizialtasun hori ez dela egiazkoa eta gaztelania dela nagusi administrazioaren jardunean eta komunikazioan. Egoera hori orekatzeko lehenbizi langileak euskalduntzeko ahaleginak egiten ari da Udala, baina, horrekin batera euskara noiz eta nola erabili behar den zehaztu nahi du, baina, modu aktibo batean. Hau da, administrazioa izan behar da lehenengoa euskararen erabilera bultzatzen herritarrekiko harremanetan, eskaera sustatuko du, beraz, Udalak. Eta, plan honetan urrats bat harago joango da eta bere baliabideen barruan euskaraz egiteko gonbita egingo du.

Hortaz, indarreko legeria oinarri harturik, Gordexolako Udalak herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta hizkuntza egoera normalizaturantz abiatzeko urratsak eman nahi ditu Erabilera Plan honen bidez. Hori dela eta, bertan herritarrekiko eta beste instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanetan hala nola barne jardunbidean eta gizarte-bizitzan, euskararen erabilera normalizatzeko eta biziberritzeko eman beharreko pausuak proposatuko ditu.

### **8.1.- Ahozko komunikazioa:**

Udalak ahozko kanpo- zein barne-harremanetan duen euskararen erabilera aztertu da esparru honetan. Hau da, herritarrak udalarekin harremanetan jartzen direnean, beste erakunde bat jartzen denean eta beste departamentu bat zein departamendu berekoak haien artean harremanetan jartzen direnean zer nolako erabilera duten. Hori eskaerari begira. Baina, udalak egiten duen eskaintza ere jaso da (telefonoz, leihatilan, erantzungailu automatikoan, jendaurreko ekitaldietan,...) Gordexolako Udalak euskaraz eta gaztelaniaz emango du zerbitzua, ekimen eta bulego fisiko nahiz birtual guzti-guztietan. Betiere kontuan harturik solaskidearen nahia, hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Nolanahi ere, ahozko harreman-mota guztietan (telefonoz, harrera-lekuetan...), euskaraz egingo dute lehen hitza Gordexolako udaleko langile euskaldunek, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Beti errespetatuko dute solaskidearen hizkuntza-aukera, inolako deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere.

**a) Herritarrari zerbitzua ematen zaionean,** euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da. Euskaraz ez dakien langile bati herritarren batek euskaraz hitz egiten badio edota euskaraz jardun nahi duela adierazten badio, orduan langile horrek bere inguruko lankide elebidunei

eskatuko die laguntza herritarraren eskubide hori berma dadin. Beraz, aurrez aurre edo telefonoz udalera euskaraz jotzen duen herritarrari euskaraz erantzungo zaio.

Edonola ere, Gordexolako Udaleko langileek ezin izango diote eskatu herritarrari hizkuntza batean edo bestean jarduteko. Aitzitik, herritarrak hautatuko hizkuntzan bideratuko du langileak zerbitzua. Hori dela eta, herritarrekin harreman zuzena duten langileek bi hizkuntza ofizialetan jarduteko nahikoa gaitasuna izango dutela ziurtatu eta bermatuko du udalak. Horretarako prestakuntza bultzatuko du ahal den kasuetan eta kontratazio berrietan edo Kanpoko enpresen bidez kontratatzen diren zerbitzu publikoetan hizkuntza irizpideak beteko direla eta langile euskaldunak izango direla bermatuko du.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

Apurka-apurka euskarak gero eta toki handiagoa du ahozko erabileran. jendaurrean dauden langileek ez dutenez gaitasun nahikoa euskaraz arreta emateko, telefono bidezko zerbitzua jarri da hasieratik herritarrek hizkuntza hautatu ahal izateko. Horrela, udalera deitzen duen herritarrak euskaraz artatua izan nahi badu udaleko euskaldun batek zuzenean zerbitzua emango dio. Orain arte, aurrez-aurrekoa konpondu da beste langile euskaldun batek zerbitzua emanda, dena dela, aurrera begira, jendaurrekoa lanpostu bat, behintzat, langile euskaldun batek bete beharko du. Beraz, plangintzaldi honetako **helburua** izango da **herritarrekin izaten diren harremanetan euskararen erabilera gehiago areagotzea eta sustatzea**.

Halaber, langile euskaldunak trebatuko ditugu euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin, eta **eredu erabilgarriak** emango dizkiegu administratuekin euskaraz aritu ahal izateko ahal duten neurrian.

Egoera hobetzeko asmoz, adierazgarriak (txantxangorriak) jarriko dira herritarrei jakinarazteko zeintzuk langile diren euskaldunak eta bertan euskara egiten dela eta esaldiak (hemen egin dezakezu euskaraz,...) herritarrak euskara erabiltzera animatzeko.

Horretaz gain, jendaurreko ekitaldietarako (prentsaurrekoetan, erakundeak antolatutako ekitaldietan...) Udalaren izenean aritzen dena –langile nahiz kargu publikoa- euskaraz arituko da lehenengo eta euskalduna izanez gero, hizkuntza ofizial biak erabiliko ditu modu orekatuan. Hala ere, errealitatea ez dugu ahaztu behar eta ditugun baliabideekin jardun behar dugu. Horiek horrela, hizlariak gaitasun nahikorik ez duenean, euskarazko testua irakurriko du, edo behar diren neurriak (itzulpen sistemak, euskaldun batek egitea....) ezarriko dira.

**b) Administrazioen arteko harremanetan**, harrera euskaraz izatea bermatuko da: lehen hitza, alegia. Eta ahalegin berezia egingo du Gordexolako Udalak jarraipena ere euskaraz izan dadin, solaskidea euskal hiztuna den kasuetan.



c) **Udal barruko harremanetan**, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, arian-arian lan-hizkuntza ere izateko bideak jorratuko dira. Horrela, adostasuna tarteko, langileen arteko ahozko harremanak eta eguneroko zereginak dakartzaten ahozko jardunak apurka-apurka euskaraz ere egingo dira. Gure udalerraren egoera soziolinguistikoa eta langileen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, badakigu helburu hau ez dagokigula guri; hala ere, VI. Plangintzaldiarena denez saiatuko gara langile euskaldunen artean laneko ahozko komunikazioa euskaraz izaten. Ahalegin berezia egin beharko da bai jarrerak, bai ohiturak aldatze aldera. Lan bileretan euskara erabiliko da parte hartzen dutenek gaitasun nahikoa badute, bai ulertu edo hitz egiteko.

Era berean jokatu behako lukete arduradun politikoeak, hau da, euskaldunen artean, behintzat, komunikazioa euskaraz izan beharko luke bai langileekin baita euren artean ere. Horretaz gain, Udalbatzetan baita batzordeetan ere euskarak bere lekua har dezala ahaleginak egingo dituzte politikari euskaldunek. Beraz, motibazioan eragingo da eta euskaraz hitz egiteko ohitura sustatuko da.

## **8.2.- Idatzizko komunikazioa**

Idatzizko komunikazioari dagokionez irizpide orokor batzuk zehaztuko ditugu:

- Gordexolako udalak bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen **inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz** idatzita egingo dira, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan betetzeko moduan. Udalaren ardura izango da erabiltzen diren inprimakietako hizkuntza **kalitatea** zaintzea.
- Herritarrei zuzendu beharreko gainerako dokumentazio estandarizatu orokorra euskaraz eta gaztelaniaz egongo da. Orri berean hizkuntza ofizialak bi zutabetan antolatzea hautatzen denean, **euskarazko testua ezkerreko zutabe**an joango da eta gaztelaniazkoa eskuinekoan. Goian eta behean idaztea aukeratzen denean **goian jarriko da euskarazko** testua. Hau da, euskarari lehentasun espaziala emango zaio beti.
- Hartzaile jakin eta zehatzik ez duten administrazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita bideratuko dira.
- Euskara soilik erabiliko da herritarrak edo dagokion entitateak administrazioarekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean, edota haiek euskara hutsean igorritako idatzien erantzuna denean.

Horretaz gain, bi aukera aztertuko dira: Gordexolako Udala dokumentu-igorlea denean eta hartzailea denean.

a) Gordexolako Udala **dokumentu igorlea denean** (herritarrari zerbitzua ematean, beste administrazio batzuekin harremanak ezartzean eta udalean bertan), oro har, lehenengo komunikazioa elebietan edo euskaraz egingo da, jarraian aipatzen diren egoeren arabera.

Elebietan egitekotan, bide emango zaio hartzaileari Administrazioarekin ados jarri eta euskararen aldeko hautua egiteko, baldin eta kasuan kasuko administrazio-atalak gaitasuna badu, itzultzaileen beharrik gabe, lan-jardunen komunikazioak euskaraz egiteko. Nolanahi ere, hartzaileak nahiago balu elebietan edota beste hizkuntza ofizialean jarraitu harremanetan Administrazioarekin, jakinaraztea baino ez du izango, eta hautatutako hizkuntza horretan izango da komunikazioa handik aurrera, bestelako erabakirik hartu ezean.

Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok hartzen badu parte eta hizkuntzaren gainean ados jartzen ez badira, espediente edo prozedura bultzatu duen pertsonak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da. Hori bai, betiere besteen hizkuntza-eskubideak errespetatuz, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarritz.

Hori horrela izanda ere, Gordexolako Udalak euskaraz igorriko ditu idatziak baldin eta:

- Herritarrak, beste administrazioak edo Udal barruko kasuan kasuko langileak alde zuzenetik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela.

- Ohiko harremana euskara hutsezkoa bada; horrelakoetan, euskararen aldeko hautua egin dela ulertuko da: (administrazioen kasuan, kulturean, hezkuntzan, euskararen, gazterian,...)

Euskara ofiziala den lurraldeetatik kanpoko administrazioetara idatzi elebidunak bidaliko dira, euskarazko mezua lehenetsita.

b) Gordexolako Udalak **dokumentua jaso eta erantzun behar duenean**, honela jokatu du (herritarrari zerbitzua ematean, beste administrazio batzuekin harremanak ezartzean eta udal barruan):

- Gaztelaniaz jasotako idatziari gaztelaniaz erantzun dio. Betiere euskara aukeran eskainita, baldin eta kasuan kasuko administrazio-atalak, itzultzaileen beharrik gabe, horretarako hizkuntza-gaitasuna badu.

- Elebietan jasotakoari, oro har, elebietan erantzun dio. Betiere kasuan kasuko administrazio-atalaren arabera, euskara hautatzeko bidea eman.

- Euskaraz jasotakoari euskaraz erantzun dio.

Hori lortzeko helburu xumeagoak eta mailakatuak zehaztu ditugu. Lehenetsia emango zaie ondorengoei:

- Herritarrari zuzendutako dokumentu errazak hizkuntza bietan ziurtatzea (ofizioak, jakinarazpenak, ohar laburrak,...)
- Herritarrek eskatutako dokumentu konplexuak ere elebietan (txostenak, aktak,...)
- Horrez gain, erakunde publikoei zuzentzen zaizkien idatzi errazenetan ere (txosten laburrak, ofizioak,...) jokoera bera jarraitzea.

### **Langileen arteko idatzizko komunikazioa**

Euskara lan-hizkuntza izan dadin emango den lehenengo urratsa langileen euskararen aldeko jarrera, motibazioa eta onarpena sustatze aldera izango da. Lehenengo barruko dokumentu

errazak landuko dira (bilera deiak, baimen eskaerak, ordenagailuaren bidezko mezuak..) eredu batzuk eman eta behar denean eurek sortzeko baliabideak eman.

Udalak kudeatutako komunikazio tresnetan (ohar eta iragarki taulak, zirkularrak, intranet,..) bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira euskarari lehentasuna emanez.

Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak,..) izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko modua egongo da.

Horrekin batera, erakunde barruan komunikazioak euskaraz jaso nahi dituzten langileak identifikatu eta horiei informazioa emateko protokoloa zehaztuko da.

### **8.3.- Komunikazio telematikoa**

Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak pertsona fisiko eta juridikoekiko harremanetan. Komunikazio-mota berri horiek aldaketak ekarriko dituzte Administrazioaren eguneroko jardunean, eta horien artean handiena hau izango da: hemendik aurrera normala izango da herritarrak tramitazio bat egitea telefonoa edo ordenagailua erabilia, alegia, funtzionarioen beharrik izan gabe.

Komunikazio hori eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da bide telematikoak sorrarazten dituen ahozko eta idatzizko mezu guztiak erabat argiak eta anbiguotasunik gabekoak izatea, Administrazio bulegoetatik kanpo dagoen herritarrak inolako laguntzarik gabe erraz ulertzeko modukoak. Horrek mezu horien ikerketa komunikatibo sakona eskatzen du, betiere hizkuntzaren kalitatearen bidetik. Tramitazio telematikoan erabili beharreko hizkuntzei dagokienez, udalak irizpide hauei jarraituko die aurrerantzean:

- Tramitazio elektronikoa, informatikoa eta telematikoa herritarrak hautatzen duen hizkuntzan egingo da: euskaraz edo gaztelaniaz.
- Nolanahi ere, tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpen edo ziurtapena testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango dio herritarrari elebietan jasotzeko.

### **8.4.-Itzulpenak:**

**Itzulpen irizpideak:** Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak esaten duenez, Administrazioaren komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egin behar dira; inon ez da esaten, ordea, itzulpena nahitaezkoa denik horretarako. Nolanahi ere, euskararen egoera soziolinguistikoa dela-eta, hauxe izan da azken urteotako joera: testu gehienak gaztelaniaz sortu izan dira, eta gero euskarara itzuli. Gauzak horrela egiten badira, garbi dago erdal testuak markatzen duela maiz euskal itzulpenak izango duen egitura, estiloa eta itxura.

Gaur egun autonomia nahikoa duten langileek ez dute sistematikoki itzulpenetara jotzen, beraiek sortzen dute testua eta zalantzarik izanez gero, eurek egindakoa gainbegiratzeko eskatzen diote itzultzaileari.

Beraz, bide horretatik jarraituko dugu eta sortze hizkuntza euskara izatea bultzatuko dugu ahal den guztietan. Hau da, Gordexolako Udalak, ahal den neurrian, Administrazioako agiri elebidunak sortuko direla bermatuko du, itzulpen-zerbitzuetara sistematikoki jo gabe. Azken batean, informazioa komunikatzea da udalaren zeregina, bi hizkuntza-komunitate ezberdinei komunikatzea, alegia; eta horretarako ez dago itzulpenen beharrik: nahikoa da zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortu eta ematea, betiere edukia errespetatuz, baina estiloa hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta. Idazketa elebidunaren prozesu hori errazteko, baliabideak jarriko ditu Udalak, besteak beste:

- Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langileak
- Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak
- Trebatzaileak
- Idazki-eredu normalizatuak
- Kontsulta-zerbitzuak
- Informatikako tresnak
- Etab.

### **Itzulpena**

Idazki bat bi hizkuntza ofizialetan emateko, itzulpena ez da ezinbestekoa; hala ere, inoiz idazkiren bat itzuli behar bada testuaren berezitasunak hala eskatzen duelako, sail bakoitzaren ardura izango da bere dokumentuak itzultzea.

Lehentasunezko komunikazioak ezingo dira itzuli komunikazio horiek aurrera atera behar dituenak beharrezko prestakuntza jaso badu horretarako eta erabilera planean horrela jasota badago. Kasu horietan langileak berak sortuko ditu euskarazko testuak, itzultzailearen laguntzarik eskatu gabe.

Gordexolako Udalak kanpotik jasotzen dituen idazki guztiak ez dira, besterik gabe, itzuliko. Baldin eta egiaztatzen bada administrazio-atal hartzailean agiria aztertu eta izapidetu behar duenak ez duela behar adinako gaitasunik hizkuntzaren aldetik agiria bera ulertzeko, orduan edukiaren laburpena egingo dio atal horretako lankide gaituren batek, eta ezinbestekoa denean bakarrik egingo zaio agiriaren beraren itzulpena.

Laburbilduz: Idatzi bat bi hizkuntza ofizialetan egin behar denean, ez da sistematikoki itzulpen zerbitzura joko. Langileen hizkuntza gaitasunaren arabera jokatuko da:

- a) Langileak dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duenean n edo egiaztatu gabe ere gaitasuna gaitasuna duenean.

-Testu laburrak (orrialde bat) edo dagoeneko itzulitakoen moldaketak bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz sortuko ditu. Testuen zuzentasuna bermatze aldera, behar duen guztietan, mankomunitateko euskara teknikariaren aholkuaz baliatuko da

### **8.5.-Langileen prestakuntza orokorra:**

Prestakuntza ikastaro gutxi ematen dira, berez, eta eman izan direnean denak erdaraz egin dira; langile kopuru txikia izanda ez dago aukerarik ikastaro bera bi hizkuntzetan eskaintzeko. Ikusten denez, orain arte atal honetan euskarak ez du leku handirik izan. Hortaz, euskarazko eskaintza sustatzearekin batera langileen motibazioa ere landuko dugu, eurek eska dezaten prestakuntza ikastaroak euskaraz ere izateko. Izan ere, orain arte langileek ikastaro gehienak gaztelaniaz egitea hautatu baitute.

Prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan eskainiko zaie Gordexolako Udaleko langileei ahal den guztietan. Horrelakoetan, izena emateko erabiltzen diren tresna informatikoak eta bestelako bitarteko guztiak bi hizkuntza ofizialetan eskainiko dira.

Hortaz, Gordexolako Udaleko langileei prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan emango zaie horretarako baldintzak betetzen direnean.

### **8.6.- Berariazko hizkuntza-prestakuntza eta Trebakuntza**

Trebakuntza izan behar da estrategia nagusia, udal osoaren hizkuntza irizpide orokorrak jorratzeaz gain, lehenetsitako ataletan, jendaurreko lanpostuetan eta lehenetsitako gainerako lanpostuetan berariazko helburuak eta irizpideak lantzeko. Trebakuntza, ondorioz, honela defini daiteke: langileen eskura jartzen diren laguntza, orientabide eta baliabide multzoa, lana euskaraz egiteko.

Langile batek dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanak, ez du beti bermatzen langile horrek euskaraz lan egiteko gaitasuna duenik. Badira tartean beste eragile hori gertatzeko, eskaera gutxi eta ondorioz ez erabiltzea euskara, hizkuntza eskakizuna aspaldian atera izana, motibazioa... Hori guztia zuzentzeko eta hobetzeko dago berariazko hizkuntza-prestakuntza. Eta Gordexolako udala horretaz baliatuko da langileen gaitasuna hobetzeko. Baina, ez du edozein langilek prestakuntza hori egingo baizik eta planaren helbururen batekin zuzenean harremana duena. Ezin baita ahaztu langilea prestatzen ari dela, ez euskara ikasteko, baizik eta emaitza jakin bat lortzeko: ahozko zein idatzizko komunikazioak euskaraz ere egiteko. Izan ere, azken helburua da prestakuntza bukatzean langilea prest izatea lana euskaraz eroso egiteko.

Beraz, planean sartuko diren langileen eguneroko jarduna aztertuko da eta lehentasun komunikatiboa duten lan-jardunak aukeratuko dira lantzeko. Ikerketa sakonago hori egin

bitartean, hona hemen, azterketa komunikatiboa garatzean zein lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaion:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.
- Lanpostuko eginkizunak betetzean, harreman-sare handia dutenak, Administrazioaren barruan izan edo kanpoan izan.
- Eragin handiko komunikazioak:
  - Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak)
  - Zabalkunde handikoak (leku eta jende askorengana heltzen direnak)
  - Idazki askotarako oinarri direnak (dekretuak,...)
  - Aplikazio informatikoetan sartuko direnak.
  - Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web orrian azalduko direnak, aldizkariak, iragarkiak, argitalpenak...)

Azterketaren ondorioz, abian jarriko dira administrazio-hizkeraren gaineko saioak, idatzizko komunikazioari buruzko ikastaroak, idazki-eredu ezberdinak lantzekoak edota tokian-tokian beharrezko izan daitezkeen xede edo helburu bereziei buruzkoak. Horrelako trebakuntza saioak planean sartuko diren langile guztientzat proposatzen dira eta bere iraupena landu behar diren komunikazioen arabera izango da.

### **8.7.-Tresna eta aplikazio informatikoak:**

Gaur egun informatikak baliabide handiak eskaintzen ditu lan emaitzak hobetzeko. Gainera, informatikak idazki sorkuntzan eman ditu pausurik handienak eta udal-administrazioa hobetzeko, bide horretan sakondu behar da. Lana euskaraz egiteko, lan tresnak ere euskaraz behar dira. Gaur egun **udalaren informatika-sarean erabilgarri dauden programa gehienak erdara hutsean** daude.

Hortaz, lehenengoz euskarazko bertsioak non lortu eta nola instalatu azaldu beharko zitzaizkien langile euskaldunei. Hala ere, batzuetan programa horien guztien erabiltzaileek prestakuntza berezia behar dute. Horregatik, bitartean bestelako aukerak erabil litezke: euskarazko zuzentzaile ortografikoak, hiztegi elebidunak eta sinonimoen hiztegiak on-line, kontsultarako euskarazko web orrien erabilera... Beraz, programa horiek lan-tresna dituzten udal-langile guztientzat ikastaro labur bat antolatu beharko da euskarazko programen terminologiara ohitzeko.

Programa elebidunak direnean, erabilera gaztelaniaz egiten da. Beraz, lehenengo eta behin langile euskaldun edo erdi euskaldunen motibazioa landu behar da eta ohitura aldaketa lortu behar da, beti ere behar dituzten baliabideak eta hizkuntza aholkularitza emanda. Beraz, euskarazko erabilera sustatzeko kanpainaren bat prestatu behar da.

Gordexolako Udalean dauden programak zeintzuk diren aztertuko da eta zein hizkuntzatan erabili ahal diren eta erabiltzen diren. Gaietik aztertuta, erabilera nagusia gaztelaniaz egiten dela ikusi da. Beraz, lehenengo eta behin langile euskaldun edo erdi euskaldunen motibazioa landu behar da eta ohitura aldaketa lortu behar da, beti ere behar dituzten baliabideak eta hizkuntza aholkularitza emanda. Beraz, programa, aplikazio, datu base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatuko zaie 2. Hizkuntza eskakizunetik gora egiaztatuta duten langileei, eta beti ere beharrezko prestakuntza eskainiko zaie.

### **Helburuak eta proposamenak**

- Helburua, **baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da**, beti ere euskarazko bertsioek, erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.
- Poliki-poliki administrazio atal guztietan (langile euskaldunak izanez gero) erabiltzen diren **programak euskaraz erabiltzeko egokitu** beharko dira.
- Euskarazko bertsioak eskuragai izango dituzten langileek horiei buruz egiten duten **balorazioa zein den eta zenbateraino erabiltzen dituzten azertu** behar da.
- Horrez gain, euskararen erabilerarako interesgarria litzateke (baita udalaren beraren funtzionamendurako ere) informatika sareetan sartzea, administrazio publiko eta erakundeek sarean dituzten baliabideak aprobetxatu ahal izateko (Euskalterm, administrazio idazkiak, hiztegiak).
- **Erregistroa:** Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan eremu bat dago sartzeko edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan idatzita dagoen adierazteko. Bada, eremu hori betetzea ezinbestekoa da.

Jatorrizkoak idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira dokumentuak. Ele bietan idatzitakoak euskaraz erregistratuko dira.

Hauexek dira atal honetako **irizpideak**:

**Bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira** saileko programa informatiko komertzial edo orokorrak eta berezko programa edo tresna informatikoak.

Sail bakoitza arduratuko da, erabilera-plana oinarri hartuta, hemendik aurrera sortzen diren aplikazioetan irizpide hori betetzen. Eta erabilgarri dauden programa informatikoak euskaraz lan egiteko prestaturik ez daudenean, dagokion sailak egutegi bat egingo du tresna informatiko horiek berri, egokitu eta hizkuntza-irizpide horiei lotzeko. Xede horri begira, bertsioa elebiduna bada, euskarazkoa moldaera txukuna eta erabilgarria izango dela bermatuko da: euskarazkoa ez da izango gaztelaniazkoaren egokitzapen hutsa.

Nolanahi ere, euskarazko bertsioaren erabilera hobetsiko da derrigortasun-data ezarrita izan eta dagokien hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan eta baita, derrigortasun-data ez izan arren, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten horietan ere.

### **8.8.-Internet:**

Udaleko internet, sare sozial eta mugikorretako aplikazioetako edukiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko eta izapideak egiteko moduan egongo dira.

#### **Webguneak**

Udalaren web orrian euskararen erabilera eta presentzia aztertu da eta interneten bidez langileek eskura dezaketen informazioa jaso da.

Web orriari dagokionez, %80 elebietan dago, baina, oraindik ere hainbat dokumentu (kontratazio arloko hainbat dokumentu, dekretuak...) gaztelaniaz baino ez daude:

Gordexolako web orrian hasierako hizkuntza hautatzeko aukera dago, dagoeneko.

Interneten bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

Udalaren web orrian beste erakunde, enpresa edo gainerakoek sortutako edukiak barneratzen direnean, bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira; alegia, sortze-hizkuntzen arteko oreka izango da oinarri, eta kalitatea bereziki zainduko da.

#### **Sare Sozialak**

Sare sozialetan erabiltzaileek bermaturik izan behar dute bi hizkuntza ofizialetan nabigatzeko eta edukiak bi hizkuntza ofizialetan eskuratzeko aukera. Argazki, etiketa eta abarren azalpenetan ere bete beharko da irizpidea.

Blog, foro edo bestelako sare sozialetako erabiltzaileen iruzkinei erantzutean, iruzkineko hizkuntza bera erabiliko da beti.

Gazteei edo umei zuzenduta edukietan aztertuko da euskara hutsean egiteko aukera, hartzaileak, gaia, ... kontuan hartuta.

#### **Helbide elektronikoak**

Euskaraz sortuko dira eta euskaraz izendatuko dira helbide elektronikoen multzoak (udaltzaingoa, idazkaritza...)

### **8.9.- Argitalpenak:**

Gordexolako udalak ez dauka argitalpen finkorik, hala ere, euskarri fisikoan zein digitalean egiten duena bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira. Beti ere, euskarari lehentasuna emango zaio. Euskara ofiziala den lurraldeetan banatzen diren argitalpenetan bi hizkuntza ofizialek trataera orekatua izan behar dute.



Argitalpenaren berariazko ezaugarriek, izaera eta jasotzaileek (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) hala eskatzen duenean, argitalpena euskaraz egingo da.

### **8.10.- Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak):**

Hizkuntza paisaia, udalaren irudia duten elementuek, balio sinboliko nahiz informatiboa dutenek, gorpuzten dute. Kanpoko hizkuntza paisaian errotulu nagusiak, informazio eta norabidezko errotuluak, katalogo, gida, prentsa iragarki, megafonia eta etiketak jasoko dira; barruko paisaian, ostera, barruko informazio eta norabide errotulazioa, bulegoetako dietario, egutegiak, e.a., tresneria, fotokopiagailukoak, zigiluak, anagramak, jasoko dira.

Errotulazioari dagokionean, ondo zaintzen du Gordexolako udalak elebitasuna, hala ere, irizpide orokor batzuk zehaztea derrigorrezkoa da:

Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak) oro har, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira, bulego, egoitza zein lagatako lokal guztietako kanpoaldean nahiz barrualdean.

Errotuluetako eta noizbehinkako oharretako testua euskara hutsean idatzi ahal izango da ondoko kasuetan, betiere euskararik ez dakiten herritarren hizkuntza-eskubideak urratu gabe:

- a) Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- b) Mezuak piktograma batez lagundurik agertzen direnean eta horren bitartez ulergarriak direnean.

### **8.11.- Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak:**

Horrelakoetan euskararen presentzia zenbaterainokoa den aztertu da eta irizpide orokorrak ezarri dira beti euskararen presentzia bermatze aldera. Bi hizkuntza ofizialetan egingo dira Gordexolako Udalean iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak; hala ere, hartzailearen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, euskaraz ere egin ahal izango dira. Euskaraz egingo dira, oro har, hurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutakoak, baita hartzaileen ezaugarriek (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo gaiak hala eskatzen dutenean ere. Beti ere hartzaile guztien eskubideak bermatuta badaude.

Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.

Kanpainaren edukiak eta esloganak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak; hau da, gaztelaniaz funtzionatzen duen testuak euskaraz porrot egiten duela gerta ez dadin. Hori ekiditeko, komunikazio-kanpainetarako lehiaketa publiko eta era guztietako kontratazioetan baldintza gisa eskatuko da kanpainaren mezua bi hizkuntzatan sortua izatea, hots, hizkuntza batean sorturikoaren itzulpena ez da baliozkotzat emango.

Horrela, bada, ahalegina egingo da kanpainak euskaraz ere sortzeko eta euskarazko komunikazioa zaintzeko: idazki jatorrak, zuzenak, ulergarriak eta egokiak izango dira.

### **8.12.- Diru-laguntzak:**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatzeko Arauei buruzko Legearen testu moldatua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.1 artikulua c) hizkian xedatutakoaren arabera, diru-laguntza eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan, horiek esleitzeko eta, hala badagokie, horien zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean kontuan izan behar da hizkuntzaren erabilera, laguntza edo diru-laguntzaren objektuan hizkuntzaren erabilerak eragina duenean edo Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 25., 26. eta 27. artikuluetan aipatzen diren jardueraremetan.

Gordexolako Udalak kontuan hartzen du hizkuntzaren erabilera Kultura eta kirol elkarteei ematen zaizkien diru-laguntza eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan. Hauxe da hain zuzen, egiten eta egingo duena:

1. Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Gordexolako Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Diru-laguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, diru-laguntzen hartzaileek, laguntza jasoko badute, eta udalak irizpide horiek bete daitezzen bermatuko du.

### **8.13.- Kontratazio administratiboak:**

Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza -baldintzak betetzen diren ala ez aztertu da eta orain arte horrelakorik ez zela kontuan hartzen egiaztatu dugu. Horren ondorioz, lehentasunak zehaztuko dira orain arteko egoera eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Dena den, hizkuntza irizpide orokor batzuk proposatu dira..

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak eta IVAPek kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak sartzeko emandako orientabideak eta proposamenak, honako hau da Gordexolako Udaleko Euskara Zerbitzuaren proposamena:

Gordexolako udaleko kontratazio-organoek nahitaez sartuko dituzte hurrengoak kontratuetan:

1) Honako hizkuntza irizpide orokorren klausula sartuko da berariazko klausula administratiboetako karatuletan:

Kontratuaren esleipena jaso duen enpresa eta azpikontratatistak izan daitezkeen horiek kontratua gauzatzean begiratu beharko diote hizkuntza bien, euskararen eta gaztelaniaren, koofizialtasunari eta euren jarduera elebitasun irizpideen eta herritarren hizkuntza eskubideen menpe izango da, horrela zehazten baitute 10/1982 Legeak, Euskaren Erabilera Arautzeko Oinarrizkoa, Autonomia Estatutuak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Edozein kasutan eta kontratu mota guztietan, esleipendunak edo azpikontratatista izan daitezkeen horiek kontratuaren xedea gauzatzerakoan egiten dituzten komunikazio orokor guztiek ele bietan egon behar dute.

Hurrengoak komunikazio orokorrak dira:

- Errotulazioa eta seinaleak
- Argibideak, publizitatea, iragarkiak, zerbitzuak eskaintzeko agiriak.
- Inprimakiak
- Megafoniaz ematen diren komunikazioak
- Hartzaile jakinik gabeko gainerako komunikazio guztiak

Gauzatu beharreko jarduerak erabiltzaileekin edo kontsumitzaileekin zuzeneko harremana dakarrenean, esleipena jaso duen enpresak edo azpikontratatista izan daitezkeen horiek gaitasuna eduki behar dute zerbitzu hori gaztelaniaz nahiz euskaraz emateko, eta ezinbestez erabiltzaileek edo kontsumitzaileek aukeratzen duten hizkuntzan artatu behar dituzte. Horretarako kontratatistak edo azpikontratatistak herritarrekin harreman zuzena duten funtzioak euskaraz betetzeko behar diren adina langile gaitu izango ditu, agindu teknikoaren pleguaren edukiak kontrakoa xedatzen duenean izan ezik.

Hizkuntzaren betebeharrak kontratua egikaritzeko baldintza dira eta betebeharrak horiek ez betetzeak dakartza kontratuak betetzen ez direnerako aurreikusitako ondorio eta erantzukizun berberak.

2) Kontratu mota bakoitzaren arabera, klausula espezifikoagoa sartuko da, kontratua burutzean zein hizkuntza irizpide bete behar den zehaztuko duena. Klausula hauek jasoko dira berariazko klausula administratiboen pleguetan, kontratistaren betebeharren artean, eta zerbitzu teknikoek eta dagokion teknikariak zehaztuko dituzte. Euskara Zerbitzuari aholkua eskatu ahal zaio.

#### 2.1.) Obren kontratua

Esleipena jaso duen kontratistak eta azpikontratistak izan daitezkeen horiek obren erakusgai dauden errotulazio elementu guztietan euskara erabili behar dute, elementu horiek barne eremuan zein kaleko informazio paneletan daudela.

Herritarren eskura jarriko diren agiri eta inprimaki guztiek ere, horrelakorik egongo balitz, ele bietan egon beharko dute.

#### 2.2.) Herri lanen emakida: sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak.

Esleipena jaso duen kontratistak eta azpikontratistak izan daitezkeen horiek obren erakusgai dauden errotulazio elementu guztietan euskara erabili behar dute, elementu horiek barne eremuan zein kaleko informazio paneletan daudela.

Herritarren eskura jarriko diren agiri eta inprimaki guztiek ere, horrelakorik egongo balitz, ele bietan egon beharko dute.

Gauzatu beharreko jarduerak herritarrarekin zuzeneko harremana dakarrenean, ezinbestez herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan artatu behar dute. Aukera hori egongo ez balitz, izaera orokorreko komunikazioek ele bietan egon behar dute.

#### 2.3.) Hornidura kontratua

Hornidura kontratuetan, produktu horien errotulazioak ele bietan egon behar du. Hornidura kontratuetan kontratutako produktuak softwareak, soinu-interfazeak edo ikus-interfazeak direnean, ele bietan egon behar dute kontratugileak eskatuta diseinatzen diren horiek behintzat.

#### 2.4.) Zerbitzu-kontratuak, administrazio-kontratu bereziak, kontratu pribatua.

Kontratuaren xedearen emaitza ele bietan entregatu behar da beti honelakoetan:

- Aurreikusten denean emaitza osoa edo emaitzaren zati bat herritarrei zabalduko zaiela, edo
- Kontratuaren xedearen hartzailak haurrak edo gazteak direnean, hizkuntza alorlean gizarte eremu horiek babes berezia behar dutelako.

Kontratuaren xedearen emaitza egiteko, herritarrekin harreman zuzena dakarten jarduerak burutu beharko balira, ezinbestez herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan artatu beharko

lukete eta harreman horretako euskarri edo jardueretan (inkestak, galdetegiak, eztabaida taldeak, eta abar) euskararen erabilera bermatu beharko lukete.

#### 2.5.) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua

Gauzatu beharreko jarduerak erabiltzaileekin edo kontsumitzaileekin zuzeneko harremana dakarrenean, esleipena jaso duen enpresak edo azpikontratista izan daitezkeen horiek zerbitzu hori gaztelaniaz nahiz euskaraz emateko modua izango dute, eta ezinbestez erabiltzaileek edo kontsumitzaileek aukeratzen duten hizkuntzan artatu behar dituzte.

Herritarren hizkuntz eskubideak benetan betetzen direla bermatzeko, kontratistak zerbitzua emateko euskaraz betetzeko behar diren adina langile gaitu izango ditu.

#### 2.6.) Kontratu txikia

Legez ez da beharrezkoa administrazio plegua idaztea; beraz, kontuan hartu beharko da kontratuaren xedea eta horretarako plegu teknikoan esleipena jaso duen kontratistaren hizkuntza betebeharrak agertu beharko dira.

Aurreko kasu guztietan sailen edo zerbitzuren batek laguntza beharko balu irizpideak ezartzeko momentuan edo enpresetako langileei eskatu behar zaien gaitasun linguistikoa dela eta, Euskara Zerbitzuari eskatu ahal izango dio hizkuntza irizpideei buruzko txostena, kontratazioaren ezaugarri teknikoak ezarri ondoren eta deialdia izapidetu baino lehen.

Gordexolako Udalaren kontratazioen azterketa bat egingo da eta horren arabera, erabakiko da zein kontratutan eragingo den plangintzaldi honetan.

Gaur egun, obretako kontratuetan ezartzen diren hizkuntza irizpideak, hizkuntza paisaiari (errotuluak...) eta herritarrei zuzendutako idatzizko komunikazioei lotutakoak dira (inprimakiak, eskuorriak...); zerbitzu kontratuetan berriz, honakoak dira ezarritakoak: herritarrei egiten zaien harrera eta herritarrei zuzendutako idatzizko komunikazioak (izen emate orriak, inkestak...). Haur eta gazteei zuzendutako kultura, kirola, eta aisialdiko zerbitzu kontratuetan aurretik jarritako irizpideak betetzeko eta zerbitzua euskaraz emateko ahalegina egiten du baldintza egokiak dauden kasuetan (langileen subrogazioa).

### **EUSKARA ZERBITZUAREN LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA**

Hizkuntza irizpide hauek betetzeko beti izango dute Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren laguntza. Hau da, Euskara Zerbitzuak behar beste laguntza emango die hizkuntzaren erabilera aktiboaren alde egiten dutenei: langileek beren idazkiak bidali ahal izango dituzte Euskara Zerbitzura, bertako teknikariak gainbegira eta zuzendu ditzan, idazki-eredu

normalizatuak eska ditzakete udalean, kontsultak egin,.... Hori dagoeneko antolatuta dagoen zalantza zerbitzuaren bidez egingo dute. Eta intraneten agertuko dira langileen zalantza guztiak edonork kontsultatzeko aukera izan dezan.

## **HIZKUNTZA IRIZPIDEEN GARAPENA**

Dokumentu honetan garatzen diren hizkuntza irizpideen jarraipena osatuko den batzordeak egingo du urtean birritan. Hau da, irizpideen azterketa eta ebaluazioa egingo du batzordeak, hurrengo urteko helburuak zehaztuz, irizpideak berrikusiz eta abar.

Bete ez diren irizpideak zergatik izan den eta non diren zailtasunak ikusiko da eta konponbideak proposatuko dira kasu bakoitzerako.

Oso garrantzitsua da irizpideen berri izatea langile eta ordezkari politiko guztiek. Hori dela eta, plana ezagutaraziko da eta horrekin batera dokumentu bat prestatuko da guztien artean banatzeko eta intraneten eskegitzeko. Dokumentu hori langile hasi berri guztiei banatuko zaie lanean hasi bezain laster, hau da, udalak hizkuntza politikan hartutako neurriak jakinaraziko zaizkie, euskaraz lanean has daitezten modu naturalean. Horretarako Gordexolako Udalak **Harrera protokolo** bat osatuko du. Beraz, Eta lehenengo egunean hasiberriak duen kontaktua euskaraz izaten saiatuko dira. Ondoren, bere funtzioak azaltzen zaizkionean, hizkuntza kudeaketaren gaineko erabakiak eta jakingarriak ere aipatuko dizkio bere arduradunak.

Langileen arduradunak prestatutako dokumentua banatuko dio jakin dezan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko egin behar duena. Horrekin batera, bere lanpostuaren hizkuntza ezaugarriak eta atalaren izaera linguistikoa azalduko diote, barnera dezala euskara erabili behar duela lan-hizkuntza bezala

## **9.- PLANAREN KUDEAKETA.**

Planaren kudeaketan nortzuek hartuko duten parte eta zeintzuk izango diren euren funtzioak erabakiko da.

Plangintzaldi berri honetan kudeaketa aurreratuaren alde egin du HPSk, hau da, hizkuntzen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorraren barruan txertatu beharra dago, planaren eragina behar bezala ziurtatzeko. Horrela, erakundeko ordezkari zein arduradunen erantzukizuna izango da euskararen normalizazioa, ez euskara teknikariarena. Azken horrek koordinazio eta aholkularitza lanak egingo ditu.

Hiru eragile nagusi izango dira: Euskara teknikaria, Jarraipen batzordea, eta Udalbatza. Eragile horien erantzukizun-maila desberdina izango da. Udalbatzak erabakiak hartuko ditu.

Euskara Teknikariak eta Jarraipen batzordeak erantzukizun zuzenagoa izango dute kudeaketan.

Jarraipen batzordea Mankomunitateko teknikariak, Gordexolako teknikariak planean sartuko diren langile batzuek eta euskara zinegotziak eta planaren arduraren hartu nahi duten zinegotziek osatuko dute.

Eragile horiek koordinatzeko egutegi bat osatuko da eten gabe harremanetan egon daitezela.

Izan ere, erabilera plana eraginkorra izango bada, zeharka landu behar da; hau da, ez da Euskara Zerbitzuan gelditu behar, udaleko atal guztietara zabaldu behar da eta langile guztiek izan behar dute plana barneratuta. Beraz, hau da egiten den proposamen zehatza: arduradunek egiten dituzten bileretan planaren jarraipena edo hizkuntzaren trataera beste aztergai bat izango da. Eta ikusten badute ez direla planean zehaztutako irizpideak betetzen Jarraipen Batzordeko parte-hartzailearen batekin jarriko dira harremanetan horren berri emateko.

## **10.- PLANAREN JARRAIPENA.**

Plan bat eraginkorra izango bada, lehenengo, definitu gero gauzatu eta azkenik, emaitzen jarraipena egin behar da. Eta jarraipena lehenengo bi faseak bezain garrantzitsua da. Eta Jarraipena ondo egituratu behar da, izan ere, jarraipenak bide eman behar du, helburuak berrikusteko, estrategia eta ekintza berriak planteatzeko, eta horrela, urtez urte, udaleko erabilera plana definitzen joateko.

Prozesua nolakoa izan den ere balioetsiko dugu (parte hartzea eragin duen, langileen inplikazio maila, oztupoak, indar-guneak, egindako inbertsio eta lortutako emaitzaren arteko oreka...); bestetik, aztertuko dugu erabilera planaren garapenean landutakoa udalean, eta bereziki lehenetsitako ataletan edo lanpostuetan, txertatuta gelditu ote den edota erabilera plana mankomunitateko antolamenduan txertatzeko pausoak ziurtatuta ote dauden.

Urtero, berrikusiko da ea langile gehiago sartu behar den jakiteko edo zenbait helburu edo estrategia moldatu behar den ikusteko. Horretaz gain, legea betetze aldera, apirilaren 15eko 86/1997 DEKRETUaren 19. artikuluan ezartzen denez, Gordexolako udalak planari buruzko ebaluazio-txostena egingo du plana onartu eta bi urte pasa direnean. Azterketa horrek beharrezkoak diren aldaketak eta moldaketak egitea izango du helburu.

## **11.- BALIABIDEAK**

Euskara Plana garatzeko, udal langileek honako baliabideak izango dituzte eskura:

- Aholkularitza zerbitzua (ahozkorako zein idatzizkorako).
- Hiztegi terminologikoa, testu zuzentzaileak eta baliabide informatikoak.
- Itzulpen zerbitzua erabiltzeko jarraibideak.
- Prestakuntza berezia.